

# Jan eta jantzi, jaki eta jakintza



Jakoba Errekondo  
mandio@zerain.eus

Hartzitutako janariez eta edariez galde-tu zidaten lehengo batean. Ogia, gazta, jogurta, ozpina, sagardoa, ardoa, garagardoa, sauerkrauta (aza samina, *Brassica oleracea Capitata*) eta beste maki-na bat jaki ontzeko eta iraunarazteko erabiltzen da hartzidura. Guk irakina esaten diogu edarien hartzidurari: sagar muztioak irakin egiten du eta sagardo bihurtu, eta hura, irakinaren irakinez, ozpin bilakatuko da.

Hartzitzen denak, izan landare, fruitu, ale, esne, bizi berri bati ekiten dio. Bakterioak eta legamiak dira batez ere hartzigarriak, bizi berri horretarako go-goa pizten eta akuilatzen dutenak. Zirikatzaile horiek ere bakoitzak bere gus-tuko bizitokiak dituzte. Ez dira nolana-hi eta edonon biziko. Tokira, mikroklima-ra, ekosistemara tinko-estuan lotuta-ko bizimodua dute. Tokian tokiko orain oraingoari begira daude, beraiek hartzi dezaketena urrutira gabe badela usain-

du orduko lanerako pronto. Eta emaitza bakarra da, paregabea. Hor bakarrik gertatuko dena. In-guru bakoitzak bere hartzidurak dituela esan daiteke.

Hartzigarria, neurri batean, kutsadura bat da. Sagarrak aza-lean darama, legami desdetxa, eta muztioari erantsiko dio. Aireak berak, barrikak... Denek erantsiko dizkiote hartziga-riak, legamien makrofeita; eta horrek egingo du horko sagar-doa bakar, paregabe. Horrexe-gatik hartzitutako jakiak eta edariak kultura kontuak dira. Gure ahosabaia hemen sortutako hartzituetara ohitu da, eta beste nonbaitekora egin ezinik ibiliko da. Hori da kultura, herentzia hori, ondoretasuna.

Thierry Verhelst handiak dio: "Kultu-ra, batez ere, sortzen ari denari zentzua ematea da". Hau da adiera edo esanahia



Ardoa hartzitzen.

WOLLOMBI-CC BY

den zentzua, baina baita norabidea dena ere. Hartzigarriak egiten duena: har-tzitu behar duenari nora eta nola egin behar duen erakutsi. Hartzitua jan edo edan duenak ere igarriko dio zentzu horri. Tokiaren, kulturaren, komunitatearen zentzua.

Izan ere, zentzua ez al da ba jakintzaz janztea? Geure burua janztea? Jan hitzetik jantzi, eta jaki hitzetik jakintza; ala?

## IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.eus](mailto:landareak@argia.eus) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Gure etxe ondoan zuhaitz guztiei kristoren kimaketa egin diete. Gehienak errepede ondoko platanok izan dira. Azken urte haue-tan noizbehinkako lana izan da, baina zuhaitzek segituan hartzen dute in-darra berriro ere. Oraingo honetan, ordea, gertu dugun haritz amerikar erraldoi eta zoragarri bati honako garbiketa egin diote. Zer deritzozu?

Adolfo Masid Balda (Hernani)



Kaixo Adolfo. Zalantza izpirik gabe krimen batez ari gara. Honelako mugarrotzeek ez dute inolako arrazoirik. Zuhaitza baino gehiago garelako sentitzeak soilik justifika dezake astakeria hau. Zuhaitzak, noski, erantzun eta aurrera egingo du, baina ez da inoiz zuhaitz bera izango. Egindako zauri tzar horiek betiko kaltea sortuko diote, eta enb-rra usteltzea eragingo dute, zaurietatik hasi eta beheko barreneraino. Honelako inausketak zuhaitzari zaion beldurrak eragindakoak dira, ez dago inolako arrazoi teknikorik hau egiteko. Etorkizun-ean lehen zena baino askoz ere "arriskitsuagoa" izango da aurrerantzean. Eta norteko haritza (*Quercus rubra*) izanik okerrago, bere egurra ahula baita... Zuhaitz horren bukae-ra hasi da. Goian bego.